

6 mantangorri

iRAKURRI, ETA ONDO PASA!



MARTINBER
ETA LAGUN • Kultura

Urtebetetze
oparia
prestatzen

Urte berezia da 2012a Pirritx, Porrotx eta Marimototsentzat. Urte biribila da, 25 urte bete baitituze herriz herri alaitasuna, muxuak eta irriak bantzen. Mende laurden bat, sudur gorria jantzia.

Urte berezia izanik, diskoberezia prestatu nahi izan dute sudur gorrien zaleentzat. 25 urte hauetan bizi izandako abenturak gogoratu eta ospatzeko, diskosinfonikoa grabatu dute Andoaingo Garate estudioan (Gipuzkoa). Urte hauetan Xabier Zabalak konposatutako abesti guztien artean, hamazazpi aukeratu dituzte.



Pailazoak eta Xabi Zabala, orkestrarekin.

Abestien artean daude, bestek beste: *Irri egiten duenari*, *Kintxo Barrilete*, *Minutu bat goizero*, *Unblenble!*, *Maite zaitut*, *Pirata egurzangoa...*

Disko sinfonikoa osatzeko, orkestra sinfonikoaren laguntza izan dute, baita ibilbide luze honetan bidelagun izan dituzte lagun mordoxkarena ere: Jon Maia, Maialen Lujanbio, Aitor Gorosabel, Joseba Sarrionandia, Takolo pailazoa, Gorriti aztia, Ramon Agirre, Amets Arzallus, Joselu Anaiak, Donostiarra Orfeoiko haur eta gazte taldea, Eñaut Elorrieta...

Jada amaitu dituzte grabaketa guztiek. Orain, moldaketak egitea baino ez zaie geratzen. Azaro amaieran aurkeztuko dituzte disco eta ikuskizun berria. *Sentitu, pentsatu, ekin!* izango da mende laurdeneko historia laburbiltzen duen diskoaren izenburua.

DENBORA-PASAK

1. Apaindu marrazkia

Amona Josefinaren marrazki dotorea egin dute eskolako haurrek.


**Hartu marrazkia
eredu gisa,
eta apaindu
zuri-beltzekoa.**



2. Buruhausteak

Nola demonstre lortu ote ditu emaitza horiek Elederrek?

**Jarri
beharrezko
eragiketa
ikurrak,
emaitza
horiek
lortzeko.**



$$2 \square 3 \square 6 = 30$$

$$6 \square 2 \square 5 = 20$$

$$3 \square 7 \square 8 = 18$$

Erantzunak

2. $2+3\times6=30$; $6-2\times5=20$.
3. $3+7+8=18$.